

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Berbizi enpresan argi dugu bezero eta gure arteko harremana zuzena izatea beharrezkoa dela konfiantza eta pertsonalizazioa bermatzeko. Izan ere, bezeroekiko harremana gure helburu nagusietako bat da, haien beharrak asetzeko eta gogobetetasuna lortzeko. Horretarako, gure kanalak hurbilak eta eraginkorrak izatea bilatzen dugu, bezeroekin harreman sendo eta iraunkorra sortzeko.



Gure enpresan, harreman pertsonala izango dugu zerbitzu guztietan. Gure egoitza lokalean kokatuta dagoenez ([Murueta Torre Auzunea Etxetaldea, 9](https://www.idealista.com/inmueble/25849770/)) (<https://www.idealista.com/inmueble/25849770/>), aurrez aurreko arreta eskainiko dugu. Nahiz eta telekomunikazio bidezko harremanak ere posible izan, aurrez aurreko interakzioa lehenesten dugu, gure ustez **harreman zuzenak** bezeroekiko konfiantza eta gogobetetasuna areagotzen baititu. Gainera, azoketan parte hartuko dugu, non bezeroekin zuzenean elkarreragin dezakegun eta gure produktuak eta zerbitzuak aurkez ditzakegun.

Online denda eta gurekin harremanetan jartzeko zerbitzuak

Berbizi online dendaren bidez, bezeroei aukera emango diegu edozein momentutan gure produktuak ikusi, trukatu edo erosteko. **Gure webgunearen** (<https://berbizi9.webnode.es/>) bitartez (bertan klikatu webgunea ikusteko), **harreman zuzena** izateko aukera ere eskaintzen dugu, haien galderak eta zalantzak argitu ahal izateko. Izan ere, webgunean gurekin nola harremanetan jarri azaltzen da. Horretaz gain, gure gmail kontutik (berbizienpresa@gmail.com) harremanetan jar daiteke jendea, edoizein zalantza galdetu ahal izateko. Modu honetan, edonork gurekin harremanetan jartzeko erraztasun osoa izango du. Hori gutxi balitz, gure bulegoan telefono bat izango dugu, norbaitek ahotsez hitz egin nahi duen kasuan aukera hori izateko. Kasu horretan, gure telefona webgunean ere agertzen da, kontaktuaren atalean. (Telefona: [944732902](tel:944732902)).

Bezeroak mantendu eta berriak erakartzeko ondorengo estrategiak aurkezten ditugu Berbizi enpresan:

1. **Bezeroekin harreman estua mantentzea:** Gure helburu nagusietako bat bezeroekiko harremana sendotzea da, izan ere, bezero leialak mantentzea bezero berriak irabaztea baino errazagoa eta eraginkorragoa da.
2. **Bonoak eta Abantailak:** Lau trukaketa edo erosketako bono bat eskainiko dugu, deskontu esanguratsuak aplikatuz. Hau da, denda bakoitzak deskontu bat du. Kopuru bat baino gehiago gastatzen bada, jarraian deskontua aplikatuko zaio.
3. **Azokak:** Azoketan parte hartuz, gure produktuak eta zerbitzuak hurbiletik erakutsiko dizkiegu bezeroei. Izan ere, bertan gu egongo gara, eta bezeroek gurekin hitz egin ahalko dute pertsonalki eta aurrez-aurre.
4. **Hormairudiak eta Publizitatea:** Gure zerbitzuen eta produktuen berri emateko, publizitate-kanpainak egingo ditugu hormairudi eta sare sozialen bidez. Gainera, azokak egiterako orduan, pankartak eta kartelak jarriko ditugu, kontsumismo moderatu baten alde gaudela erakusten dutenak, horrek bezeroen arreta erakarriko du.
5. Asebetetze inkestak trukeak edota erosketak egin eta gero? Hemendik informazioa lortu dezakezue, gauzak moldatu eta hobetzeko.

Laburbilduz, Berbizi enpresaren helburua bezeroekin harreman ona izatea eta batez ere, haien gogobetetasuna bermatzea da. Gure zerbitzu eta produktuak hobetzen eta egokitzen jarraituko dugu, bezeroen beharrei erantzuteko eta jasangarritasuna sustatzeko.